



# Urrezko Aizkolarien finalerdietan da Arrospide

**LEABURU** ▶ Mugertzarekin batera, Olasagasti eta Etxebeste hartu zituen mendean Asteasun

**DENBORA** ▶ Denera, 25 minutu eta 4 segundo batu zituzten; 300 bat ikuslek jarraitu zuten lehia ▶ 6

IBARRA ▶

## Puntu banaketa Ibarra eta UPVrentzat

2-2ko berdinketaz amaitu zen derbia ▶ 6

## 250 mila euroko laguntza kiroldesia hornitzeko

**ANOETA** ▶ Gipuzkoako Foru Aldundiak eman du; Udalak «ahal den azkarren» amaitu nahi ditu lanak ▶ 4

LEITZA ▶

## Aurreraren erakustaldia eta gol zaparrada

0-6 irabazi zuten Aibares aurka ▶ 7



I. GARCIA

TOLOSA-BIDEGOIAN ▶

## Aurrera-Saiaz pilota eskola, ereindako uzta biltzen

Gipuzkoako Kluben Artekoa bukatuta, Euskadikoari ekingo diote orain ▶ 5



Aurrera-Saiaz eskolako pilotariak eta ordezkariak, Beotibarren. N. URBIZU

TOLOSA ▶

## Asteburu gazi-goza etxeko taldeentzat

Garaipen bat, bi porrot eta berdinketa bat ▶ 2,3



## FUTBOLA ▶

# Merezitako garaipena urdinentzat Beasainen aurkako derbian

Berazubin jokatuako partida 2 eta Oeko markagailuarekin amaitu zen, Pablok eta Jonek lortutako golei esker

NOELIA LATABURU

Eguberrietako atsedenaldiraren ostean, indarberriturik ekin dio Ligari Hirugarren Mailako Tolosak, eta merezitako garaipena eskuratu zuen herenegun arratsaldean Berazubin jokatuako derbian. Beasain taldea izan zuen arerri, eta 2 eta 0 irabazi zieten urdinek goierritarrei «uneoro mende-an hartu eta gero». Harmailak ere bete zituzten hainbat eta hainbat zaletuk, eta «giro polita» sortu zen zelaian.

Lehen zati osoan Tolosa izan zen nagusi; haatik, golak ez ziren bigarren zatira arte heldu. Pablok gauzatu zuen lehenengo, 50. minutuan, Regillagaren erdiraketaren ostean. Aukera gehiago izan zituzten

**TOLOSA ▶ 2****BEASAIN ▶ 0**

**Tolosa.** Apezetxea, Aimar, Unai, Jon, Pablo, Romero, Elola (Lacalle), Orue, Blanco (Crespo), Regillaga eta Anton.

**Beasain.** Amiano, Etxeberria, Alkorta, Zapiain, Esnaola, Alain, Careaga (Hombre), Dabichi, Urchi, Imanol Arregi eta Asier Arregi (Rincon).

**Golak.** 1-0: Pablok (50m.); 2-0: Jonek (85m.).

**Epaileak.** Meza izan zen, Carrascalek eta Lopezek hegaletan lagunduta.



Tolosa jokatzeko. M. L. /GOIERRIKO HITZA

arren, bigarrena Jonek egin zuen 85 minutuan. Honenbestez, zazpigarren da orain Tolo-

sa sailkapen nagusian, 27 punturekin eta lehena den Sestao taldetik 12 puntura dago.

## HEZKUNTZA ▶

## Lanbide Heziketako ikastaroak, bihar

N. LATABURU

Tolosaldeko Goi mailako Lanbide Heziketa Institutuak jakitera eman duenez, bihar CAD elektrikoa eta soldadura MIG-MAG

elektrodoz ikastaroak hasiko dira. Ikastaroak doan izango dira eta izena emateko aukera du edonork. Lanbide Heziketa institutuan bertan edota 943 65 11 47 telefono zenbaki-

ra hots eginez gero, gaur edo bihar.

Proiektu hau aurrera atera ahal izateko Hobetuz-ek eta Europako Fondo Sozialak diruz lagundu dute.

## ARRAUNA ▶

## Batel estropada erakustaldi bikaina Orian

Sei mailatako arraunlariak aritu ziren herenegun, Zerkausitik Zubi Berriraino

N. LATABURU

Batel estropaden usadioa berreskuratzeko saiakerak horretan erakustaldi biribila eskaini zuten batelek herenegun Oria ibaian barrena. Jende ugari bildu zen TAKek antolatutako ikuskizunarekin gozatzera. Sei mailatako arraunlariak lehiatu ziren, eta hauek izan ziren sailkatuek lortutako denborak: infantil-kadete nesketan, 1. txandan, txanpa 1'29''93 eta bi ziaiboga 2'57''08. Maila berean, 2. txandan, txanpa 1'27''99 eta bi ziaiboga 3'04''00. Infantil

mutiletan, txanpa 1'24''19 eta bi ziaiboga 2'48''98. Kadete mutilek lortutako denbora txanpan 1'18''26koa izan zen eta bi ziaiboga 2'45''00. Jubenil zuten batelek lehen txandan, txanpa 1'17''69 eta 4'42''63 lau ziaiboga. 2. txandan, txanpa 1'20''13 eta lau ziaiboga 5'22''53. Jubenil-senior neskek, berriz, txanpa 1'15''10 eta 5'29''11 lau ziaiboga. 2. txandan 1'11''42 txanpa eta 4 ziaiboga 5'38''61. Senior mutilak txanpa 1'19''89 eta 4 ziaiboga 5'19''50. 2. txandan txanpa 1'28''56 eta 4 ziaiboga 5'43''97.

## GIZARTEA ▶

## Alde Zaharra-Dendak elkarteko zozketa

Eguberrietako kanpainaren barruan Alde Zaharra-Dendak elkarteak eginko zozketaren zerbaki irabazleak jakitera eman dituzte. Bi izan dira saridunak: 60.657 eta 27.029 zerbakiak (El Niño delako loteriako zerbakiak). Lehena Kimetz arropa dendan (Kale Nagusia) banatu zuten, eta Mediterraneotik itsasbidaia egokitu zaio irabazleari. Bigarrena Axarizuloan (Berdura plaza) saldu zen eta Play Station-a du opari. Bertan edo elkarteko dendetan jaso daiteke saria.

## POLITIKA ▶

## Bide Eginez prozesuko 3. batzarra, etzi

Tolosako Batasunak Bide Eginez prozesuko hirugarren batzarra egingo du, etzi. Udaletxeko batzar aretoan elkartuko dira, 20:00etatik aurrera. Bilera horretan bi puntu jorratuko dituzte gai zerrendaren barruan: alde batetik, Bide Eginez prozesuaren emendekin eta txostenaren bozketa egingo dute eta, bestetik, Mahai Nazionalaren aukeraketa. Batasunak batzarra herritar guztientzat irekia izango dela jakinarazi du, eta bertan parte hartzea animatu du.

## iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheko  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 50 37  
Faxa: 943 65 09 44  
e-maila: enria@inmoenria.com  
www.inmoenria.com

**Asteasu.** 250 m2-ko etxe bifamiliarra, eraikuntza berrikoa!  
**Belautza.** Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra. 462.780 euro.  
**Bidania.** Eraikuntza nahiko berriko etxe bifamiliarra, oso egoera onean.

**Ibarra.** Lokal komertziala, 60 m2-koa. Salmentan edo alokairuan.

**Ibarra.** Plaza inguruan garajea salgai.

**Ibarra.** Euskal Herria kalean 3 logelako etxebizitza salgai. Dena kanpoaldera. Oso eguzkitsua. 249.420 euro.

**Tolosa.** Erdialdean eraikuntza berriko etxebizitzak. 3 eta 4 logelekin, terrazak. Sukalde ekipatuak.

**Tolosa.** Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 168.285 eurotik aurrera.

**Tolosa.** Montezuko auzoan, 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela dituen etxebizitza salgai. Baratz eta txabolarekin. 204.345 euro.

**Tolosa.** Larramendi. 96 m2. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela.

Trastelekua eta garajea. Dena 330.560 euro.

**Tolosa.** San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

**Tolosa.** Berazubi auzoan. 2 logelako etxebizitza. Bizitzera sartzeko modukoa. 234.395 euro!

**Tolosa.** Amaroz auzoan 3 logelako etxebizitza salgai. 225.380 euro.

**Tolosa.** Zezen-plazan. 87 m2-ko etxebizitza berritzeko igogailuarekin.

**Tolosa.** Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai.

**Ikusteko modukoa!**

**Tolosa.** Geltokialdea. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. 2 logela, egongela, sukaldea, bi bainugela, 2 terraza eta 2 lorategi. Behean: garajea, komuna eta txokoa.

**Tolosa.** Trinkete. 3 logela eta bi bainugela dituen etxebizitza salgai.

**Egongela ederra. Ezin hobeto!**

**Tolosa.** Laskurain kalean. 80 m2-ko etxebizitza salgai, bizitzeko jartzeko modukoa. 297.500 euro.

**Tolosa.** Ibaratik gertu. Duplex-a garaje ibiarekin. Guztiz berritua. 297.500 euro.

**Tolosa.** Erdialdean (oso toki onean). Eraikuntza berriko etxebizitza. 3 logela eta bainugela. 371.425 euro.

**Tolosa.** San Frantzisko ibilbidean, pisu ederra salgai. 4 logela, 2 bainugela. Kanpoaldera. Altua, berokuntzarekin. Garajea aukeran.

**Tolosa.** San Frantzisko ibilbidean 120m2-ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.

**Tolosa.** San Frantzisko ibilbidea-

Pedro de Tolosa inguruan, toki paregabean! 4 logelako etxebizitza ederra saltzen da, garajearekin.

**Tolosa.** Trinkete. Garajea alokairuan.

**Tolosa.** Erdialdean. 253 m2-ko lokala (bi solairuan banatuta) salgai.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. Taberna alokairuan.

**Tolosa.** Araba etorbidean, garajea alokairuan.

**Tolosa.** Pablo Gorosabel. 40 m2-ko bulegoa alokairuan.

**Tolosa.** Usabal. 2.000 m2-ko pabiloi industrialala alokairuan.

**Txarama inguruan.** 100 m2-ko etxebizitza terrazarekin salgai.

**Egongela su bajuarekin.** Lursaila eta garajearekin. Oso egoera onean.

**Villabona.** 24.400 m2-ko lursaila eta 140 m2-ko borda salgai.



SASKIBALOIA ▶

## 58 eta 87 galdu du Tolosa Aralar taldeak Usabalen

Datorren larunbatean Gernikan jokatuko du senior mailako saskibaloitako taldeak

I. ETXEBESTE

Tolosa Aralar saskibaloitako taldeak 58 eta 87 galdu zuen larunbatean Sugarrak de Laudio taldearen aurkako norgehiagoka. Azkenaldian ez da zortea edukitzen ari neurketetan. Liga interautonomikoan ari den senior mailako taldeak Gernikan izango du hurrengo neurketa, hango Gernika KESB taldearen kontra; larunbat arratsaldean izango da, 17:00etan hasita. Infantil mailako Tolosa Argysan A taldekoek, berriz, Usabalen jokatuko dute larunbatean, 10:30ean, Tolosa Argysan B taldekoen kontra.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
  - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
  - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
  - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
  - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
  - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
  - ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
  - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
  - ▶ **Irua.** Osasun zentroa: 690720
  - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
  - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
  - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
  - ▶ **Tolosa.**
    - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
    - ▶ San Esteban: 006800
    - ▶ Gernikako arbola: 006900
    - ▶ Amaroizko dispen.: 672637
    - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdia)
    - ▶ DYA: 672536
    - ▶ Gurutz Gorria: 674888
  - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
  - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaeran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurreremendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

ARETO FUTBOLA ▶

# Aurretik esperotako porrota bai, baina alde handiz sortua

UCAM Murcia taldearen aurkako norgehiagoka 6 eta 3 galdu du Hegoalde

IRATXE ETXEBESTE

Hegoalde estu hartu zuen Murtziako (Espainia) UCAM taldea igandean. 28. minutura arte bikain eutsi zion UCAM Murciari haren kantxan. Mikel Larrea eta Ruben Salvador gustura geratu ziren oso beren neskek erakutsitako jokoarekin. «Sendotasuna hartzen ari da taldea, eta antzematen da gorantz goazela, maila asko hobetzen ari garela», zioten partidua amaieran. Porrota aurrez ere espero izatekoa zen, baina gutxi uste zuen Hegoalde Murcia «ahalgutidunari» gauzak hain zail jarriko zizkionik. Atzealdean sendo —nahiz eta sei gol jaso— eta erasora begi-

ra ere lotsarik gabe aritu ziren tolosarrak: ia aurkariak bezainbeste jaurti zuten kontra-koaren atara.

Hurrena Mainfer Zaragoza taldeari egingo dio bisita Hegoalde. Orain azkena Valladoliden aurka gertatu bezala, zuzeneko arerioa da talde aragoarra; oso partidua garrantzitsua da tolosarrentzat. Saikapenean puntu bateko alde besterik ez du Zaragozak; hortaz, «gaindituz gero aurkari bat gehiago atzeratuko luke Hegoalde». Etxetik kanpo jokatzea dute aurka, eta azken boladan taldeak erakutsitako joko hobekuntzak ematen duen indarra alde. Lehen itzulia bukatzeko bi partida besterik ez dira falta.

UCAM MURCIA ▶ 6

HEGOALDE ▶ 3

**Ucam Murcia.** Sonia, Sofia, Ana, Monica eta Sara —hasierako bestekoa—; Maria Otero, Fatima, Haydee eta Inma.

**Hegoalde Tolosa.** Sarah, Miriam, Ermi, Vicky eta Alde —hasierako bestekoa—; Maider, Edurne, Naiara, Ane eta Amaia.

**Golak.** 1-0: Sofiak (6m.); 2-0: Fatimak (15m.); 2-1: Emik (19m.); 2-2: Maiderrek (27m.); 3-2: Sofiak (28m.); 4-2: Fatimak (29m.); 5-2: Fatimak (31m.); 6-2: Haydeek (33m.); 6-3: Amaiak (38m.).

SAILKAPENA ▶

1. CD Futsi Navalcarnero	35 puntu	9. Mainfer Zaragoza	14 puntu
2. UCAM Murcia	30 puntu	10. ADAE Valladolid	13 puntu
3. Tecnocasa Mostoles	30 puntu	11. Cajasar Cordoba	13 puntu
4. Femesala Elche	25 puntu	12. FSF Rioja Diamante	13 puntu
5. Kettal Fuenlabrada	25 puntu	13. Hegoalde KE	13 puntu
6. Preconte Telde Canaria	21 puntu	14. VP Soto del Real	13 puntu
7. Majadahonda Afar 4	17 puntu	15. CD Ourense SAD	9 puntu
8. Finques Cadi Gironella	17 puntu	16. Valencia FFS	6 puntu

ARETO FUTBOLA ▶

## Bidezko puntu banaketa Laskorain eta Lezoko Allerruren arteko derbian

Berdinketa batek «inor asebetetzen ez» badu ere, «gustura» geratu dira Egizabalen mutilak

I. ETXEBESTE

«Denok dakigu Eguberrietan hamaikatzeko gehiegikeria egin ohi dela. Urtearen gainontzeko egunen batzbesteko lerro horren gurutzaketan kirolariak ez dira salbuespen izaten. Laskoraineko zerbait jokalaria goizeko ordu txikietan likore ezberdinen nahasketak biltzen zituen edalontziz apainduta edo turroia eta polborioaren tentaldian erorita ibili dela jakin dugu. Baten bat neskaxen gaueko taxilari lanetan ere hasi bide da. Panorama aldrebes hau kudeatzea ez zen lan erraza izan, baina erakunde horiaren lider naturala den Iñaki Egizabalek bere esku gogor baina motibataz lehenagorik gure mutilak lehenagorik larunbateko derbi garrantzitsurako puntu-puntu jartzea lortu zuen», esan dute areto futbol taldekoek partidaren kronika egiterakoan.

Ongi ekin zioten norgehiagokari ikastolakoek, bisitariak baino baloi jabetza eta arrisku

sentsazio gehiago erakutsiz. Beharbada nagusitasun horrek emandako konfiantzaren ondorioz etxeok erlaxatu egin ziren, eta Allerrukoek ederki baliatu zuten ahultasun hori eraginkortasun harrigarri batean oinarrituz markagailuan 0 eta 3 aurreratzeko beste hainbeste kontraerasotan. Laskorainekoak jipoi itzela hartu zuten, «groggy» egoeran», baina «egonarri eta fedea bezalako osagaiak dituen Laskorain-labeldun errezeta aplikatu» 1 eta 3koa lortu zuten Calixtoen bitartez, berriz ere partidari sartuz. Bisitariak 5 faltarekin zeuden eta atsedena iritsi aurretik seigarrenaren egin zuten, eta «Telle-golek markagailuko alde murriztu zuten era bikainean, 10 metro-tako jaurtiketari esker».

Bigarren ekitaldia «Fortuna jaunkosaren laguntza ordainezkinarekin» hasi zuten tolosarrak. Izan ere, Telletxearen jokaldi bat bisitariak beren ate-

an sartu zuten berdinketa ezarri elektronikoa. Barriola izan zen areaz kanpotik jaurtitako obus batekin etxeok lehendabizikoz markagailuan aurretik jarri zituen. 3 puntuak Tolosan geratuko zirela ziurduenean, Laskorainekoek 10 metro-tako jaurtiketa huts egin, eta bisitariak aurretik jarri ziren berriz ere jarraian sartutako bi golei esker. Norghegiok amaitzeko minutu gutxi falta zirela «Saldias amarrutsuak lortu zuen azken berdinketa Yustos II.a Indartsuak egindako jokaldi bikain bat bukatuz».

Berdinketarekin, gustura

«Nahiz eta berdinketa batek ez duen inortxo ere asebetetzen, partida bere osotasunean aztertuz gero puntu banaketa bidezkoa izan zela esan dezakegu». Jorge eta Urko Alonso, Amatriain, Barriola, Calixto, Domentxe, Murgi, Saldias, Telletxea, Yustos eta Zubillaga jokalariek, Egizabal entrenatzaileak eta Javi Saldias ordezkariek aritu ziren Laskorain izenean. Altuna baja jakinaz gain, «gure Paul Newman partikularrak deialdia egiterako orduan ezin izan zuten Gil TDLaren zerbittuekin kontaktu sorbalduen arazo batzuk direla medio. Lehenbailehen osatu eta entrenatzailearen esanetara izatea espero dugu».

Gainontzeko taldeek hurrengo astera arte itxaron beharko dute ligari ekiteko, eta, bitartean, lan fisikoan oinarritutako entrenamenduak osatzen ari dira. Bigarren taldeak atzeratua zuen partida bera berdindu zuen Bilkoin Legorretaren aurka; Jonikok sartu zuen gola. Bikain ari da zapatila horidun ibartarra aurtengoa. Albeste txarrik ere izan zen, ordea, izan ere, Marinek belauneko lesio larri bat izan zuen eta baja izango da denboraldi luze batez. «Animo, Harritz!».

**Tolosako Udala**

**IRAGARKIA**

Gobernu Batzordeak, 2005.eko abenduaren 19an egindako bilaren hurrengo proiektua hasiera batez onestea erabaki zuen: Apatarearekako Industrialdeko H partzelari dagokion Xehetasun Azterlana.

Hirigintza Planeamenduari Araudiko 117 artikuluan eta Hirigintzaren Plangintza eta Kudeaketarako tresnak aztertzeko ekimenaren 30eko Eusko Legebiltzararen 17/94 Legeko 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, espedientea HAMABOST EGUN jendaurrean jarrita egongo da.

Espedientea jendaurrean jartzeko arrazoiak hau da: nahi duenak bere interesen alde egoki irudizkoen zailak errekalmazioak aurkezteko aukera ematea.

Iragarri hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Diario Vascoan, Tolosaldeko Hitza eta Berriaren argitaratuko da. Aurrean aipatu den epea argitalpen horietako azken iragarpena kaleratu eta biharamunetik hasiko da kontatzen.

Epe horrek dirauen artean, ikusi eta aztertuta nahi duenaren esku egongo da espedientea Tolosako Udaltzako Hirigintza Bulegoan, Plaza Zaharra, 6-B eraikinean. Alegazio edo errekalmazioak erakin horretan bertan dagoen Sarrera Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira alkaterehendakariari zuzenduta.

Tolosa, 2006ko urtarrilaren 5ean.  
ALKATEA.

ANOETA ▶ AZPIEGITURAK

# 250.000 euroko diru laguntza Aldundiak kiroldegiarentzat

Ekipamenduaz hornitzeko emango du subentzioa; Udalak «ahal den azkarren» amaitu nahi ditu falta diren lanak



Kiroldegiari atzo ateratako argazkia; xehetasun batzuk falta dira eraikina guztiz bukatzeko. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Gizarte eta Erakunde Harremanetarako departamentuak eskaturik, Diputatuen Kontseiluak onartu berri du Anoetako Udalarik 250.000 euroko diru laguntza ematea kiroldegia egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiko Aparteko Inbertsio Planean 2004-2007 aldirako aurreikusita dagoena. Kopuru hori izango da Foru Aldundiak emandakoa kiroldegia ekipamenduaz hornitzeko.

Hain justu, egun eraikinari xehetasun batzuk baino ez zaizkio falta eta argindarraren instalazio lanekin eta ekipamendua jartzen ari dira. Fidel Azpiroz alkateak adierazi duenez, «ahalik eta azkarren» nahi dituzte lanak amaitu.

Foru Aldundiak diru laguntza baldintza batzuekin eman

du. Esaterako, onarturiko proiektuarekin bat etorritik egitea obrak. Bestalde, hitzarmenean sartzen diren obrak kontratatzerakoan, Administrazio Publikoetako kontratuei buruz indarrean dagoen arautegian jasotako printzipioen arabera jokatzeko.

Hitzarmenaren testuinguruari atxikiz, Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako departamentuko teknikoei utzi behar zaie bai obraren eta bai kiroldegiaren gaineko kudeaketaren kontrol eta jarraipen lanak egiten. Kontabilitateari dagokionez, bertan jaso behar da hitzarmenean aurreikusitako foru ekarpenak.

Lanen burutzapenari dagokionez, bestetik, jarraipena egingo duen batzordearen eraketa bultzatzea da baldintza, lanak egin ahal sor daitezkeen

edonolako gorabeherak konpontzeko eta lanak proiektuaren arabera egingo direla ziurtatzeko.

Zehaztuko diren baldintzetan kirol instalazioa erabiltzen utziz, ikastetxeekin, kirol federazioekin, kirol klubekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlana egitea, eskola kirolerako programak eta Gipuzkoako kirolarien errendimendu eta teknifikazioak behar bezala gauzatzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hautatutako kirol erakundeek hogeita bost urtetan uztea kirol instalazioa lehenasunez erabiltzen, kirol erakunde horiek laguntza tekniko eman diezaieten beren kirol mailari esker Estatuko lehiaketetan parte hartzen duten edo parte hartzeko itxaropen sendoak dituzten kirolariak.

ZIZURKIL ▶ EGUERRIAK



## Errege Magoen bisita jaso zuten San Millan elizan

**Erredakzioa** ▶ Zizurkilen ez da Errege Magoen kabalgararik egiten, baina berdin-berdin egiten dute bisita Meltxorrek, Gasparrek eta Baltasarrek. Hori bai, Zizurkil Goiko San Millan elizan Errege egunean egiten den mezan izaten dira, bere pajeek lagundurik. Jaiotza biziduna izaten da ere meza horretan, eta Errege Magoek bisita egiten diote mezan pasarte hori irakurtzen ari diren bitartean. Meza ondoren, ohi bezala, opariak banatu zizkieten haurrei. Eta aurten ere Fraisorora bisita egin zuten. HITZA

BERASTEGI ▶ EZBEHARRA

## Berastegi bat hil da autoak harrapatuta

Itziaroko gainan errepidean lanean ari zela gertatu zen ezbeharra atzo goizean

ERREDAKZIOA

55 urteko berastegi bat, J.V.L.M., hil zen atzo goizean Itziarreko gainan errepidean lanean ari zela auto batek harrapatuta. Ezbeharra 09:30ean gertatu zen N-634 errepidean. Langilea garbiketa lanak egiten ari zela harrapatu zuten Bilboko matrikula zuten

Ford Fiesta batek. Anbulantzia bat joan zen bertara, baina ezin izan zuten ezer egin, ordurako langilea hilda baitzegoen.

Hildakoaren gorpua Donostiako Auzitegiko Patologia Zerbizura eraman zuten. Bere aldetik, Ertzaintzak ikerketa ireki zuen ezbeharrean gertatutakoa argitzeko.

ZIZURKIL ▶ GERTAERAK

## Morenoren bilaketa lanak bertan behera utzi dituzte

ERREDAKZIOA

Orencio Moreno zizurkildararen bilaketa lanak eten zituzten herenegun. 77 urteko gizonak astebete darama desagertuta eta bera aurkitzeko orain arte egindako saiakerak ez dute fruiturik eman. Hain justu, pasa den larunbatean izan ziren Ertzaintza, Gurutze Gorria eta DYA eta zenbait herritar bilaketa lanak egiten.

Bilaketa lanak amaituztat eman badituzte ere, ikerketak irekita darrai. Hipotesi nagusi

siena Moreno Oria ibaira erori zela da. Zizurkiletik Oria itsasoratzen den arte aritu dira hainbat urpekarri ibaia arakatzeko, baina ez dute ezer aurkitu. Orencio Moreno azkeneko aldiz Villabonatik Zizurkilgo Ubare auzoan duen bere etxera zihola ikusi zuten. Osasun aldetik ez zebilen oso ondo eta horregatik etxetik alde egin ote duen aukera baztertzeko familia. Zizurkilen eta Villabonatik txartelak jarri dituzte desagertutakoaren argazkiarekin eta kontakturako telefono batekin.

**ABURUZA** Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA



TOLOSA-BIDEGOIAN ▶ PILOTA

# Lanaren fruituak jasotzen

Gipuzkoako Kluben arteko Txapelketa bukatuta, Aurrera-Saiazeko pilotariek lortutako emaitzak zoriontzekoak dira: maila ederra erakutsi dute denek

NEREA URBIZU

Ukabezina da Aurrera-Saiaz pilota eskolak duen indarra azkenaldian. Izan ere, Gipuzkoako Kluben arteko Txapelketa oso emaitza onak lortu ditu. Pilotariak izan dira protagonista, noski: azken finean, jokoan aritu direnak eta gogor entrenatzen aritu direnak haiek izan baitira.

Irail aldera ekin zioten Gipuzkoako Kluben arteko Txapelketa, bai binakakoa eta baita banakakoa ere. Aurtengo emaitzak oso onak izan dira, ia maila guztietan sariren bat jaso dutenez, batez ere binakako partidetan.

Laster izango da ere *Berria* egunkariak antolatzen duen III. Pilota Txapelketa, eta han ere lehiari ariko da Aurrera-Saiaz pilota eskola. Amezketa Zazpi-Iturri eskola bezala. Hasiera hilaren 14ean emango diote, Hernaniko pilotalekuan. Aurrera-Saiazen kasuan, hilaren 22an jokatu dute lehenengo partida txapelketa honetan, eskola bizkaitar baten kontra, Oizpe, alegia. Irabaziz gero, Huarte eskolaren aurka ariko lirarteke otsailaren 19an. Amezketa eskola aurten lehendabiziko aldiz parte hartzen duen talde batekin lehiatuko da: Lasarteko Intza, hain zuzen ere. Beste 22 pilota eskolak parte hartuko dute hauekin batera. Bost partida jokatu dituzte orotara, eta finala apirilaren 1ean izango da Hernaniko pilotalekuan. Gogoan har-



Ezker-eskuin, goian: Zapiroin, Aspe, Renobales, Orbegozo, Oteiza, E. Galarraga, Anizeto Lazkano (entrenatzailea), Mujika, K. Galarraga, Huarte eta Olaetxea. Beheran, Andres Aramendi (delegatua), Aranzabe, Telletxea, Senperena, Belloso eta Luis Galarraga (delegatua). N. URBIZU

## Oteizarentzat bigarren txapela

Kontuan izatekoa da ere Jabi Oteiza Azken Portuko (Zarautz) gazteak DV torneoan lortutakoa; izan ere, eskuz binakako txapelketa txapeldun atera zen. 22 urteko pilotari

honek bi urte daramatza Tolosako Aurrera-Saiaz pilota eskolan, eta jadanik bere bigarren txapela du DV torneoan, atzelari bezala jokatu. Lehenengo urtean lesioa izan zuen es-

kuineko besoen eta ezin izan zuen jokatu. Hala ere, garaile aurtun ere. Horrela jarraituz gero, urruti iris daitekeela diote adituek, eskualdeko beste pilotari asko bezala. ◀

### EMAITZAK ▶

Gipuzkoako afizionatu mailan jokatu du Aurrera-Saiazek, besteak beste. Hurrengo zerrendan Kluben arteko Txapelketa lortutakoak daude:

**AFIZIONATUAK 1. MAILA Txapeldunordeak.** Mikel Belloso-Jabi Oteiza, Iker Huarte.

**AFIZIONATUAK, 2. MAILA Txapeldunak.** Unai Asperubén Zapiroin. Txapeldunordeak. Mikel Olaetxea-Jon Orbegozo.

**AFIZIONATUAK 3. MAILA Txapeldunak.** Igor Aranzabe-Joseba Senperena.

### JUBENILAK

**Banaka, txapeldunordea.** Ariz Mugika.  
**Binaka, txapeldunordeak.** Xabi Telletxea-Koldo Galarraga.

tzekoa da ere *Berria* Txapelketa honen ezaugarrietako bat tanto gehien pilotatzen dituen bikoteak aurrera egiten duela dela.

Horrez gain, Euskadiko Txapelketa, jubenilen mailakoek —banakako talde bat eta binakako beste bat— eta 22 urtez azpikoek bi taldek eta banakako talde batek jokatu dute. Sei talde izango dira osotara. Hilaren 14an hasiko dira partida hauek, eta orduak zehazteke dauden. Gainera, Euskadiko Txapelketa senior berezian bikote bat ere ariko da: Belloso-Oteiza. Zortzi bikote ariko dira, hortaz.

Ea batean ala bestean, baina beti joko onarekin, eskualdeko pilotariren bat ikusteko parada dagoen, saiatzen diren mutil hauek balio dute eta.

hitza

lagunen  
**txokoa**

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

## Egin zaitez harpidedun!

▶ DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

**Avalon**  
o s a g a i a k  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**honekin**  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 22 44

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**ILUMINAZIOA**  
**SHANTI KIROLAK**  
Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**MUGAR**  
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

**LIZARRIBAR**  
ONETAKOAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

HERRI KIROLAK ▶

# Finalerdirako sailkatu da Arrospide

## Olasagasti eta Etxebeste mendean hartu zituzten berak eta Mugertzak

IÑIGO TERRADILLOS

Herenegun jokatu zuen Anjel Arrospide leaburuarrak, Asteasun, Binakako Urrezko Aizkolarien saioa, Fausto Mugertza mutrikuarra bikote zuela, eta finalerdiak jokatzeko txartela eskuratu zuen Joxemari Olasagasti eta Joxe Etxebeste Igeldokoak mendean hartu ostean.

60 ontzakoa zutik moztuz hasi ziren lanean, eta Leaburu-koak eta Mutrikuoak gailendu ziren 2 minutu eta 31 segundo denborarekin. Jarraian, oin bikoa etzanda moztu beharra

izan zuten, eta hor ere lehenak izan ziren. Ondoren, bakarkako lanari ekin zioten; Olasagasti eta Mugertza lehiatu ziren lehendabizi, eta Igeldokoa izan zen azkarrena. Arrospideren eta Etxebesteren artekoan, berriz, Leaburu-koak izan zen lehena. Etxebesteren eta Mugertzaren artekoan mutrikuarrak irabazi zuen, eta Arrospideren eta Olasagastiren artean leaburu-ruarra gailendu zen.

Ordurako, Arrospide eta Mugertzaren aldea nabaria zen, baina oraindik ere azken saioa geratzen zitzaizen aizkolariet.



Urrezko Aizkolarien finalerdian da Arrospide. IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

Etxebeste eta Olasagasti gogor saiatu ziren azken proba horretan, eta azkarrenak beraiek izan baziren ere, proba guztietako denborak batuta Arrospideren eta Mugertzaren atzetik geratu ziren, 25 minutu eta 49 segundorekin. Garaileek, berriz, 25 minutu eta 4 segundo batu zituzten proba guztietan.

### Aimar Irigoien, bikain

Urrezko Aizkolarien saioaz gain, Aimar Irigoien harri-jaso-tzailearen erakustaldiaz gozatzeko aukera izan zuten Asteasura herenegun joan zirenek. Hain zuten ere, bere aita zendu zenetik egiten zuen lehendabiziko saioa izan zen.

Hasi 100 kiloko zilindroarekin hasi zen 15 jasoaldi emanenez. Ondoren, 177 kilokoari esku bakararekin 2 jasoaldi eman zituen. Hirugarren saioan, 225 kiloko harria bi aldiz jaso zuen eta, azkenik, 125 kiloko kubikoari 10 jasoaldi eman zituen.

Giro eta ikuskizun aparta izan zen, Asteasun, eta 300 lagun inguru bildu ziren.

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

# Berdinketarekin amaitu zen Ibarra areto futbol taldearen eta Donostiako UPVren arteko derbia

## Jubenilen areto futbol taldeak 5-5 amaitu zuen C.D. Logroñes-en aurkako partida

ERREDAKZIOA

Jose Manuel Tobias Ibarra areto futbol taldeko prentsa arduradunak azaldu bezala, «deporaino» bete zen larunbatean Belabieta kiroldegia Ibarra eta Donostia UPVren arteko norgehiagokan. 2-2ko berdinketarekin amaitu zen, hain zuten, «denboraldiko partidariak erakargarriena» izan zena.

Bi taldeek ederki ezagutzen dute elkar, baina hori ez zen oz-

topo izan ate batean zein bestean golak egiteko aukerak sortzerako orduan. 17. minutuan iritsi zen lehendabizikoa donostiarren eskutik. Ibarra-koek, ordea, segituan sartu zuten berdinketaren gola. Hautsi izan zen buruarekin alboko sake batean baloia sare barrura sartu zuena. 1-1ekoarekin atsedendira iritsi ziren.

Bigarren zatiko lehenengo minutuan Donostiako Edu jokalariek Sanz atezainaren al-

deratzea baliatuz aurretik jarri zuen bere taldea. Jokoa ona bazen ere, eta bi taldeak maila ona erakusten ari baziren ere, ezin esan gauza bera epaileak egiten ari zirenekin, akatsak behin eta berrito ari baitziren egiten. Hala, partida amaitzeko 7 minutu geratzen zirenean epaileek UPVkoen entrenatzaile kaleratu zuten, «arrazoi zehatzik gabe». Erabaki horrek partidako tentsioa areagotu zuen.

Ibarra berdinketaren golaren atzetik ari zen borrokan, eta hori amaierarako 4 minutu geratzen zirela etorri zen, Labak eginiko jaurtiketa baten ondorioz. 2-2koarekin amaitu zen partida. Aipatzeko da gisa horretako partida batean Gipuzkoako areto futboleko ordezkari hutsunea nabaria izan zela.

Bestalde, jubenilek ere berdinketarekin amaitu zuten nagusien aurretik jokatu zuten

UPV DONOSTIA ▶ 2

IBARRA ▶ 2

**Hasierako bostekoa.** Mikel Sanz; Lander Camio; Unai Labaka; David Prados; Hautsi Izagirre.  
**Aldaketak.** Uztaritz Errondosoro; Sinoe Sanz; Jon Ander Carrera; Xabier Blanch; Mauro Ayerza.  
**Aulkian.** Igor Zabalo; Fernando Ayerza.

partida: 5-5 amaitu bukatu zen C.D. Logroñes-en aurkakoa. Aipatzeko da partida horretan talde aurkariaren «mehatxuzko eta kiroltasunik gabeko jarrerara», eta epaileen «zalantzak lana».

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13  
**VILLABONA**  
Tel.: 943 69 68 56  
mug.: 616 93 17 88



**Amezket.** Etxe abikia salgai. Eraiki berria. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Andoain.** Eraiki berria den etxebizitza ikusgarria salgai. Hiru logela eta garaje ibiarekin. Oso ederra. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Ibarra.** Berrituriko pisu ederra salgai. Sukalde-egongela, 3 logela eta bainugela. Dena kanpoaldera. 41.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Legorreta.** Egoera onean dagoen baserria salgai. Lursailarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Segura.** Familia bakarreko baserria salgai. Lursailarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Tolosa.** Etxebizitza altua igogailuarekin salgai. Hiru logela eta trastelekua. Eguzkitsua. Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Villabona.** Egongela, sukalde, 3 logela eta bainugela. Berritua. Ikuspegiak. 38.000.000 pezeta.

Etxesagasti 943 69 68 56.

**Zizurkil.** Egongela, sukalde, 2 logela eta bainugela. Sartzeko moduan. Trastelekuarekin. 44.000.000 pezeta.

Etxesagasti. 943 69 68 56.

**Eskaera handia** dela eta, etxebizitzak, bakarkako etxeak, baserriak eta nekazaritzarako eta hirigintzarako lursailak behar dira Tolosaldean. Alokairuan edo salmantan. Itxaron zerrenda dugu. Etxesagasti. 943 69 68 56.

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

'Zeuk idatzi'. Tolosaldeari eta Leitzaldeari buruzko berriak idatzeko aukera eskaintzen du gure webgunean topa dezakezuen Zeuk idatzi atalak. Sartu, beraz, eskualdeko egunkariaren webgunean eta ez galdutik aukera zure berriak jakitera emateko.

LEITZA ▶ FUTBOLA

# Ordainak eta beste hiru ere eman dituzte

0 eta 6 irabazi dio Aurrerak Aibaresi, zelaian bakar-bakarrik ari bailiren

JAIONE ASTIBIA

Urte berriarekin batera, bikain hasi dira Aurrerako futbolariak: 6 eta 0, hobeki esan, 0 eta 6ko emaitza eskuratu zuten larumbatean leitzarrek, Aibarren, Aibares taldearen aurkako partiduan. Emaitza hori lortuta ukaezina da mutilak indartsu daudela, eta gogotsu aritu zirela lanean ere, eta horrela jarraituz, Ligako tenore hauetan, bigarren itzulian sartuta daude jada, igoerako leku horietan egoteko jarrira duten helburua beteko dutela.

Esan bezala, larunbat arratsaldean jokatu zuen Irujo eta Arrizurietak prestatzen duten Aurrera taldeak. Kanpoan ari beharrak izaki, eta hain justu ere oraingoz Ligan galdu dituzten bi partiduetatik bat Aibar-koekin galdutakoa izanik, Arkixkilan gainera, Ligako aurreneko partidu hartan, ustez lan pixka bat eman beharko zuen jardunaldia zuten aurrez aurre honetakoan. Baina horixe, us-tez. Izan ere, aibartarrek ez zieten eragozpen gehiegirik jarri leitzarrei garaipena eskuratzeko orduan: haiek partidu oso eskasa egin zuten eta, aldez, hemengoek sekulakoa.

Futbol zelaian jaun eta jabe izan zen Aurrera. Baloia jabetza eta jokoa ere erabatekoa izan zuten, eta futbol erakustaldi bikaina egin zuten leitzarrek, talde lanean, jokaldi bat bestea baino hobea eginez, eta aurkaria erabat ezeztatuz. Aldea handia izan zen bi taldeen artean, Aurrera gehiago izan zen, eta horrek bere isla

izan zuen markagailuan eta noski, azken emaitzean, kasu honetan. Sei gol sartu zituzten, seirak baliagarri bezain politak: Antton Gomezek, hiru; Eneko Anduezak, bat; Gari Etxegaraik, bat; eta Jon Arangoak, bat. Bat aitatzekotan, akaso, taldekiden esanetan, «kontraeraso batean, Harkaitz Bengoetxeak erdiraketa egin eta Antton Gomezek buruz sartu zuena», gogora ekarri zuten atzokoan. Bestalde, Jon Arangoak egindakoan, Aibareseko jokalaririk baten hankak ikustekorik izan omen zuen. Nabarmenezkoa Antton Abruzaren Aurrerako atezainak ez zuela batera lanik egin beharrik izan partidu osoan zehar. Bere taldearen jabegoa halakoa izanik, aibartarrek ez zuten gol arriskurik batera sortu bere atean.

Kontuak kontu, Aibares taldea «desagertua» egon zen partidu osoan zehar eta leitzarrei, berriz, saiatzen ziren guztia ateratzen zitzaizkien. «Dena ateratzen den egun horietakoa izan zen», baieztatu zioten HITZARI atzokoan: «Zelaia ere oso egoera onean zegoen, han ez baitu hainbeste euri egin, eta guri egiten genuen guztia ateratzen zitzaigun», zioten. Nabarmendu nahi izan zuten, bestalde, «oso joko garbia» egin zutela bi taldeen artean. Nolanahi, horrelako emaitzik ez zuten espero, «Eguberriak direla eta geldirik egon gara, prestaketak ere ez dira ohiko martxan egiten eta, baina ongi aritu ginen, oso ongi, gozatuz», zioten.

LEITZA ▶ GIZARTEA



## Presoak gogoan izan dituzte azken jaietan ere

**J. Astibia** ▶ Bukatu berri den Eguberrietako jaialdi luze honetan, tenoreko ospakizunekin eta atsedena batekin batera, hainbat eta hainbat herritarrek euskal preso politikoen aldeko ekitaldiak egin ohi dituzte. Hori da Leitzako kasua, konparaziora. Horrela, ilbeltzaren 5ean, arratsaldean, Kabalgatan aldarriak ere bere lekua izan zuten, dozenakada herritarrek elkarretaratzea egin baitzuten herriko plazan, *Igor eta Eneko askatu!*

*Estatu politikoa orain, euskal presoak etxera eskariak buru zituztela —goiko argazkian—. Gauean, berriz, presoek aldeko elkartasun afaria egin zuten Erletan —beheko argazkian—. Etxerat elkarrekin antolatuta, eta bertara ehun afaldar baino gehiago bildu ziren. Bestalde, han bertan egin zuten Torreon salgai zeuden boletoen zozketa ere eta 614 zenbakia suertatu zen saridun, jakin ahal izan denez. JAIONE ASTIBIA*

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
**50.000**  
etxetara

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik





Harpidedunei banatua ▶ 2006ko urtarrilaren 10a, asteartea ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

09

hotzera

05

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe:



gaur: bai / bihar: bai

Pagomari:

gaur: bai / bihar: bai

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Alegia.** Eskuz binakako pilota txapelketa hasiko da laser. Txapelketaren nondik norakoak zehazteko bilerara deitu dute, 19:00etan, Kultur Etxean.

**Ibarra.** Saharako herriarentzat elikagaiak biltzeko kanpaina. Hilaren 20ra arte, udaletxean eta Kultur Etxean.

**Tolosa.** Herritarren parte-hartze jardunaldiak hilaren 13an eta 14an, arau subsidiarioez. Parte hartzeko deitu 943 69 74 50 telefono zenbakira.

**Tolosa.** Bizkaian zehar antolatutako mendi irteera Alpino Uzturre elkarteak datorren iganderako, hilaren 15a: Alonsotegin hasi eta amaituko dute ibilaldia. Izen-ematea elkartean (Gudari, 5. 943 65 27 89).

**ERAKUSKETAK**

**Tolosa.** Manuel Lasarte bertsolari leitzarrari buruzko erakusketa. Hilaren 14a arte, Aranburu Jauregian.

**Tolosa.** Alejandro Tapiaren pinturak. Hilaren 28ra arte, Aranburu Jauregian.

**PROIEKZIOAK**

**Alegia.** Argazki proiektzioa eta tertulia Manuel Joubert mendizalearekin, Alaskako McKinley (6.192 metro) mendiarren igoerari buruz. 21:00etan, Gaztetxean. 18. urtemugan.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Plaza, M. Elbarren, 36. 112.  
**Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

**IRRATIA**

**Txolarre Irratia (107.5 FM - 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, agenda, albisteak, lehiaketa, disko eskainiak...  
 18:00-19:00. *Adi guri* irratsaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleekin.  
 19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotza*.  
 21:00-22:00. *Zaharrak berri*, Irulegi irratiak eskainitako saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.  
 22:00-23:00. *Street noise* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

# Txokorik kuttunenak

**I. MARRAZKI LEHIAKETA ▶** Marrazkiak jasotzeko epea amaitu arren, oraindik baditugu batzuk argitaratzeko: Leyrek, losuk, Nereak eta Leirek egindakoak, kasu



**ALEGIA ▶**

Leyre Lampe Beloqui (Alegia).


«Badator Olentzero! Zorionak eta urte berri on!», opa digu guztioi gure lagun Leyrek.



**TOLOSA ▶**

Nerea Sorondo Andueza (11 urte, Tolosa).

«Nerea Sorondo naiz eta 11 urte ditut. Hauxe da Tolosako txokorik ezagunena. Ehunka margolarik eta argazkilarik irudikatu dutena».



**TOLOSA ▶**

Iosu Gonzalez (10 urte, Tolosa).

«San Frantzisko kalea aukeratu dut. Bidegorria daukalako eta oso ondo dekoratuta dagoelako», dio losuk.



**TOLOSA ▶**

Leire Santxez Dorronsoro (5 urte, Tolosa).

«Niri elizak gustatzen zaizkit», azaldu digu Leirek bere marrazkiarentzat aukeratu duen gaiari buruz.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN, POTTOTTO**  
 Ekain (Villabona). Alzo urtebete. Ondo pasa eguna Amezketako familiarren partetik. Muxu asko.



**URTE ASKOAN**  
 Amona Petra. Gaur 90 urte. Muxu handi bat familiarren partez.

**HITZA, zorion agurren**  
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea** ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:  
 HITZAren egoitzara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA Udaletzeko bulegoa - LEITZA  
**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!**